

NIRE TABERNARIK GOGOKOENA

# Amodiozko gutuna

## Galdakaoko Zurrut tabernari



Kazetaria Jagobarekin.

EL CORREO

Unai Sarriugarte - 2020ko ekainak 11



Duela hamar urtetik hona nire bigarren etxea izan da, ni bezalako galdakoztar askorekin gertatzen den bezalaxe. Izan ere, Zurrut Taberna ostalaritza zerbitzu bat baino gehiago da. Ikaragarriak dira Jagobarekin bota izan ditudan barreak eta, zer esanik ez, bere ama Bearekin. Jagobaren arreba den Albarekin ere erlazio paregabea daukat.

Familia osoak aurkezten duen abegitasuna ezinhobea da, baita egunero zu zerbitzatzeko duten kalitate eta tratu paregabea ere. Bertan eskaintzen dituzten patata tortillak mundialak dira, eta Jagobak eta Albak prestatzen dituzten kafeak mimo askorekin eginak dira egunero.

Askotan esan ohi da zerbitzu edota enpresa bateko garrantzitsuena pertsonak direla eta horretan hamar bat jartzen diot familia osoari. Bejondeizuela eta urte askotarako!!